

Sinadura bilketa - Recogida de firmas 'Kuartel berririk ez!'

KUARTEL BERRIRIK EZ! :: 12/02/2022

[Euskara]

Jakinarazi nahi dizuegu larunbat honetan, otsailak 12, 12:30etatik aurrera, Loiolako Latsari Plazan 'Kuartel berririk ez!' ekimenak sinadura bilketa bati ekingo diola, Donostian eta munduan instalazio militar berriak behar ez direla aldarrikatzeko.

Estatuko Gobernuaren eta EAJren arteko 2021 urteko aurrekontu-itunak zuzenketa bat jasotzen zuen zehaztuz gaur egun Loiolako kuartelak hartzen dituen lurak Donostiako Udalaren eskuetara pasa beharko zirela abenduak 31 baino lehen. Jakina denez, epe hau ez da bete.

Aldiz, gaur bertan komunikabide baten bidez ezagutarazi da Defentsa Ministerioak ekainak 31 bitarteko epea eman diola Hipikari lur horiek uzteko: 2020ean Defentsa Idazkariak Kongresuan adierazi zuen eremu horrek ez zituela betetzen kuartel berri baterako baldintzak, baina aldi berean Gipuzkoan beste eraikin militar bat ezartzeko asmoa adierazi zuen. Egoera honetan, ez da oso ulergarria Hipikakoei epe hori jartzea eta atzean zein arrazoi dauden publiko egitea eskatzen dugu, hau da, militarrek bertara mugituko ote diren edo asmo espekulatiboak dauden Hipikako eremu honetan.

Egoera honen aurrean, **30 entitatek baino gehiagok osatzen dute ' Kuartel berririk ez!' ekimena (<https://kuartelberririkez.wordpress.com/>) eta beharrezkoa ikusten dugu, sinadura bilketa eta beste sentsibilizazio ekintzen bidez, herritarren iritzia entzunaraztea.**

Argi adierazi nahi dugu ez dugula kuartel berririk behar, ez Donostian, ez munduan beste inon: gastu militarra inbertsio eta alternatiba sozialetara bideratu behar da, sanitarioetara, kulturaletara, ingurumenekoetara... Gizarte desmilitarizazio prozesu orokorrak abiatu daitezela eskatzen dugu: bidezko politika ekonomiko eta internazionalak, gatazkak ez daitezela indarkeria bidez konpondu, armagintza enpresak produkzio zibilera bideratu...

[Castellano]

Os queremos comunicar que este sábado, 12 de febrero, a partir de las 12:30 horas la iniciativa 'Kuartel berririk ez!' Iniciará una recogida de firmas en el barrio de Loiola de Donstia (Plaza Latsari) para reivindicar que no hacen falta nuevas instalaciones militares, ni en Donostia ni en cualquier otro lugar del mundo.

El pacto presupuestario entre el Gobierno del Estado y el PNV para el año 2021 incluyó una enmienda en la que se detallaba que antes del 31 de diciembre pasarían a manos del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián los terrenos que en la actualidad ocupa el acuartelamiento de Loyola. Es obvio que este plazo no se ha cumplido.

Un medio de comunicación ha publicado una noticia dando a conocer que el Ministerio de Defensa ha dado de plazo a la Hípica hasta el 31 de junio para abandonar sus instalaciones. Esta exigencia no es entendible si se atienden a las declaraciones de 2020 en el Congreso de

la Secretaria de Defensa, que descartaba esta localización para un nuevo cuartel por no cumplir las exigencias militares. Es necesario aclarar las razones de este cambio, si van a utilizar ese espacio con fines militares o piensan especular también con este terreno.

En este contexto, más de 30 entidades forman la iniciativa ' Kuartel berririk ez!' y en la web <https://kuartelberririkez.wordpress.com/> se recogen sus principios y objetivos.

Queremos manifestar que no necesitamos nuevos cuarteles, ni en Donostia ni en ningún otro lugar del mundo: creemos que se precisa destinar el gasto militar a inversiones y alternativas sociales, sanitarias, culturales, medioambientales.... impulsando procesos generales de desmilitarización social: políticas económicas e internacionales más justas, resolución no violenta de conflictos , conversión de la industria de armas en producción civil...

Creemos que muchas personas comparten estas ideas, y la recogida de firmas puede servir de altavoz para sumar voces diversas a esta reivindicación

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/sinadura-bilketa-recogida-de-firmas